

PROTOKOLOA

Euskalema Itzultzaileen hileroko Bilera

2009ko ekainaren 27 an, 17:00

Lekua: Okendo Kultur Etxea, Donostia**Gaia:** “Kantuak itzultzen”**Partaideak:** Petra, Ibon, Marijose, Xabier Insausti, Xabier Montoia, Feliziano**Materiala:**

- a) –Aita semeak, M. Zarate, Oskorri; H.J. Wilkeren itzulpena
- b) –Bilbao Song, B. Brecht, K. Weil; Bilbaoko Iretargi, Realt politik, Gor Diskak, Joseba Tapiaren diskoko itzulpena
- c) –Die Moritat von Mackie Messer, B. Brecht, K. Weil. Eibarko Irratian egin zuten Drei groschen Operreko zenbait kanten itzulpena (www.eibar.org)
- d) Die Gedanken sind frei, tradizionala. Elenaren itzulpena.

a) Aita semeak kanta ezagunaren esanahiaz eztabaidatzen hasi gara. HABE ren www.ikasbil.net orrialdetik atera dut Mikel Zarateren testu bat dela. Euskal koplek kutsua hauteman diogu eta mundu tradizionalan kokatzeko imaginak sartzen dira, behi gizona eta trapu zaharrak. Ama-alabak jokoan daudela esateak ez du esan nahi kartetan edo ari dela baizik eta ez daudela lanean, ziur aski, hitz eta pitz. Behi gizona auzoan ikusi beharko badugu, gurean behi gizona ez dagoela esan nahi du, hau da, ondasuna. Eta trapu zaharrak gakoan baldin badaude horrek esan nahi du guk ez dugula ezer egiten eta ondokoak, besteak, aberastu egiten dira. Lapurtu ere egingo digute. Kantaren mezua da horrela Euskal Herria hilko zaigula eta guk izango dugula errua. Baina oraindik esperantza izan behar dugu.

Hans Joachimen itzulpena hitzez-hitz egina dago baina bigarren zatian interpretazioa okerra izango zen auzoan=Nachbarschaft bizilagunak ulertzen badugu eta ez besteak, gu ez garenak. Hans Joachimek itzulpen esplikatioa egin du, doinuaren erritmoan kantatu ezin daitekeena eta agian interpretatiboagoa egin zitekeen itzulpenean argiago azalduz esanahia. Beti ere interpretazioa guk lehen aipatu duguna dela onartzen bada.

b)

Real Politik diskako Bilbaoko Iretargi kanta entzun dugu. Kurt Weil en Brechten operako doinu berbera hartuz eta moldatuz egina dago kanta eta itzulpena libreki dago egina. Kanta ederra da, ez du itzulpen kutxurik eta ulergarria, ondo uler daiteke esaten dena. Zoritxarrez ezin izan dugu jatorrizkoa entzun eta guk ez genekien doinuarekin kantatzen baina textua konparatuz, badaude gauza batzuk itzulita ez daudenak:

“Ich weiss ja nicht, ob Ihnen so was gerade gefällt” behin eta berriz errepikatzen da, euskaraz -> “ez dut uste aspertuko zinenik han” hasieran baina gero ezer.

“es ist doll mit dem Text, es ist schon so lange her” ez da itzultzen, bukaeran soilik azaltzen da letrari erreferentzia: “Hara! Hauxe da letra!” beste azalpenik gabe.

“Ballhaus” bat ez da Borda bat baina dirudienez euskaraz horrek putetxearen esanahia hartzen du. Donezteben bazen Bordatxo diskoteka ere...

Protokoloa

Beste diferentziak ere badaude baina kanta bat itzultzean ezin gara literatura itzultzean bezain zorrotzak izan, libreki egin behar dira batez ere kontuan hartuz doinu berbera mantentzeko silaben kopurua asko aldatu behar dela, eta hitzak soilik ez dira kantua, musika, doinua ere bada kantua. Mezu garrantzitsuena ere emana dago Brechten Bilbaoko testuaren Tapiaren itzulpenean.

c)

Oso interesgarria iruditu zaigu Eibarren egin zuten Mackie Messerren itzulpena, euskalkian egina dago, hau ere kantagarria da, kantatzeko egina dago eta mezua emana dago baina ez dago hitzez-hitz literalki itzulia.

d)

Die Gedanken sind frei-en Elenaren itzulpena oso ondo dihoa doinuarekin eta itzulpena ia ia hitzez-hitzekoa da, mezua berbera da euskaraz eta alemanez baina euskal testua traketsagoa da alemana baino, pixka bat bortxatua dago euskara, hots, “inork ez ezagun” “ehiztarik ezin hil” aditzak ez daude osatuak. Bigarren zatian ere alemanez aditz konjugatuak, esaldi osatu normalak agertzen dira, euskaraz ez da ia esaldi osaturik agertzen. Bestalde “gogoetak” hitzan diptongoa dago eta ezin dugu Gedaaanken bezala luzatu.

Hizkuntzak horren desberdinak izanik oso zaila da hitz-hitzez kanta bat egoki euskaratzea alemanetik.

Feliziano